

## **STEE-EILAS sindikatuaren prentsa oharra**

Madril eta Nafarroako idatzizko komunikabide ezberdinetan Goardia Zibilak egindako ustezko txostenaren inguruan argitaratutako informazioaren inguruan STEE-EILAS sindikatuak honakoa adierazi nahi du:

- Uste dugu ez dela kasualitatea honelako berria agertzea Hezkuntza Komunitatea LOMCE-ren aurkako borroka eredugarria aurrera eramaten ari den une berean. Lege honek eduki ideologiko handia dauka eta ministroak berak esan zuen bezala ikasleak espainolizatzea du helburu.
- D ereduko irakasleek ikasleak manipulatzeko dituztela esatea, difamazio larria izateaz gain, euskarazko irakaskuntzaren aurkako eraso zuzena da eta Nafarroako Hezkuntza Komunitate osoaren erantzuna behar du.
- Euskaraz klaseak ematen dituzten irakasleek, beste hizkuntzetan ematen dituztenak bezalaxe, ez dute guztiok ideologia bera eta horregatik, hezkuntzarekin zer ikusirik ez duten helburuekin denak zaku berean sartu nahi izatea asmo txarrekoa izateaz gain, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren izen ona zikintzea bilatzen du.
- Sindikatu honek beharrezkoa ikusten duen instantzia guztietara joko du manipulazio interesdunen aurrean eskola publikoa defendatzeko eta nafar guztiok gure seme-alabak euskara hizkuntza behikularra duen ereduari matrikulatzera dugun eskubidea bermatzeko.

Ante la noticia aparecida en diversos medios escritos de Madrid y Navarra en relación a la información recogida en un supuesto informe realizado por la Guardia Civil el Sindicato STEE-EILAS quiere manifestar lo siguiente por medio de esta nota de prensa:

- Consideramos que no es casualidad la aparición de una noticia de este calado en un momento en el que la comunidad educativa está llevando a cabo de una manera ejemplar la lucha contra la LOMCE, ley con un alto contenido ideológico y que según el propio ministro busca españolizar a los alumnos.
- La utilización de una supuesta manipulación del alumnado del modelo D por parte de una parte del profesorado, además de constituir una grave difamación, supone un ataque directo a la enseñanza de o en euskera, un ataque que merece una respuesta de toda la comunidad educativa navarra.
- El profesorado que imparte docencia en euskera, al igual del que lo hace en otros idiomas, no están adscritos a una ideología concreta, y es por esto que querer relacionarlos con unos fines determinados ajenos al plano educativo además de ser malintencionado, busca desacreditar la enseñanza en euskera o del euskera.
- Este sindicato acudirá a cuantas instancias considere necesario para defender la escuela pública frente a manipulaciones interesadas, así como el derecho que todos los navarros y navarras tenemos para escolarizar a nuestros hijos e hijas en un modelo que tiene como lengua vehicular el euskera.